

**2023ko Diru-laguntza deialdia Ekintza Humanitarioko
eta Larrialdiko Laguntzako Programak babesteko**

1. artikulua. Arloa eta xedea

Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Sailak "laguntza humanitarioko eta larrialdietarako" diru-laguntza ildoaren bitartez, era honetako programak finantzatzeko diru-laguntzak emateko deialdia egin du:

- a) Ekintza humanitarioa: laguntza, sorospen, babes eta eraikuntza jarduerak, eta baita giza eskubideak defenditzeko lanak, lekukotza, salaketa, presio politikoa eta akonpainamendua, sufrimendua arindu, biziraupena bermatu, hondamendietako kaltetuen eskubideak babestu eta kalteberatasuna murrizteko.
- b) Larrialdiko laguntza: berehalako eta premiazko lankidetza hondamendi natural, gatazka armatu eta antzeko egoeretan, gizakiak salbatzeko asmoarekin biztanleei berehala bizirauteko oinarritzko ondasun eta zerbitzuak hornitzeko (osasun-arreta, aterpea eta elikagaiak) eta premia psikosozial humanitarioak betetzeko (birgaitze psikosoziala eta larrialdiko hezkuntza).

Diru-laguntza eskariek 25.000 euro eta 35.000 euro artekoak izan behar dute.

2. artikulua. Aplikatzeko arauak

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.-
- 10/1982 Oinarritzko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzea

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Diru-laguntza baldintza hauek betetzen dituzten erakundeek eska dezakete:

a) Bilbon egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra izatea, dokumentu bidez egiaztatua, gutxienez diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagotik. Alde horretatik, jendea artatzeko ordutegia zehaztuko da (halakorik balego) eta egoitza edo ordezkaritza etxebizitza partikularren batekin konpartitzen den ala ez adieraziko da.

b) Helburuetako bat ekintza humanitarioko eta larrialdietako laguntzen programak kudeatzea izatea eta horretan eskarmentua baduela egiaztatzea. Bi esku-hartze arlo horietan egiaztatzeko moduko eskarmenturik ez duten erakundeek ere jaso ahal izango dute laguntza, baldin eta diru-laguntzaren xedea Bilboko Udalarekin elkarlanean gauzatutako garapen-proiektuak kaltetzen edo arriskuan jartzen dituzten gatazka edo hondamendi-egoerei erantzutea bada.

c) Bilbon Garapenerako Lankidetzarako jarduerak sustatzen modu aktiboan aritzea.

d) Erakundeen partzuergoek (edo nortasun juridikorik gabeko elkarteek) ere eska dezakete diru-laguntza. Elkaratek erakunde bat izendatu beharko dute ordezkari edo ahaladun bakar, eta erakunde horrek ahalorde askietsia izan beharko du elkar-teari onuradun gisa dagozkion zereginak betetzeko. Erakunde ordezkariak aurreko puntuetan zehaztutako baldintza guztiak bete beharko ditu eta erakundea izango da partzuergo edo elkar-tearen ordezkaria horretarako egindako espediente administratiboan. Erakundeek preskripzio-epea amaitzen ez den artean partzuergo edo elkar-tea ez hausteko konpromisoa formalizatu behar dute, diru-laguntzaren eraginetarako. Eskarian erakunde kide bakoitzak zer egikaritze-konpromiso hartuko dituen zehaztu behar da. Partzuergoko kide guztiek 3.3 artikuluko baldintza guztiak bete behar dituzte.

e) Diru-laguntza eskatu duen erakundearen ardura izango da egoki betetzea eta Bilboko Udalaren aurren behar bezala justifikatzea, baita diru-laguntza tokiko bazkideek edo atzerriko kontraparteek egikaritu badute ere.

f) Erakunde eskaintzaileak Udalaren aurreko edozein diru-laguntza erabat justifikatu behar du, ezarritako epeetan. Baldintza hori bete ezean, organo eskudunak diru-laguntza eskaria ukatzeko erabakia hartuko du.

3.2. Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakunde Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte).

3.3. Erakunde eskatzaileek egunean eduki behar dituzte betekizun fiskalak, Gizarte Segurantzakoak eta Bilboko Udalarekin dituzten zerga-betekizunak; hori, eskaria aurkeztu denean eta prozesuak irauten duen bitartean (diru-laguntza esleitzea, betekizuna onartzea eta ordainketa egitea).

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitzen diren diru-laguntzak Bilboko Udalak 2023ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren 2023/00216 aurrekontu-kodearen kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 155.000 € da (humanitarioko eta larrialdietarako laguntza).

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu egin daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

4.3. Aurkeztutako eskarien arabera, aurrekontu-zuzkidurak handitu egin daitezke, deialdi berririk egin beharrik gabe.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1. Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka izan daiteke:

- Norghegiagokan, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

5.2. 9. artikuluan zehazturiko balorazio-irizpideen arabera gutxieneko 70 puntuetara iritsi ondoren, diru-laguntza emateko programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera portzentaje bat aplikatuz zehaztuko da, beheko taulari jarraikiz, betiere deialdiko aurrekontu-zuzkidura nahikoa bada:

Programari emandako puntuak	Emateko diru-laguntzaren %
80 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
70-80 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80

6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak

6.1. Deialdira aurkeztzen diren programek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) ELGAko Garapenerako Laguntza Komiteak GLOren hartzaile gisa kalifikatutako herrialdeetan egitea. (OCHA-United Nations Office for the Coordination of Humanitarian Affairs) Nazio Batuen Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoak jasotako ekintzak ere kontuan hartuko dira.
- b) Proiektuek oinarritzko gizarte-premiak zuzenean hobetzeko ekintza zehatzak izatea.
- c) Arraza, erlijio, sexu, sexu-orientazio eta/edo adinagatik inor ez diskriminatzea.
- d) Sozietate zibila, garapen partizibatiboa, giza eskubideak eta demokrazia indartzea sustatzea.
- e) Ekintzak tokiko bazkide eta atzerriko kontraparte baten bitartez gauzatzea, biztanleen partaidetza oinarri hartuta. Tokiko bazkideak irabazi-asmorik gabeko erakundea edo nortasun juridikoko erakunde publikoa izan behar du eta dagokion erregistroan formalki eratua eta erregistratua egon behar du. Diru-laguntza osoa edo

parte bat tokiko bazkide edo atzerriko kontraparte horiek egikaritzea ez da azpikontrataziotzat hartuko, 38/2003 Legeko 29. artikularen eraginetarako.

- f) Gehienez sei hilabetekoak izatea; eskatzaileak idatziz eskatzen badu eta Bilboko Udalak eskaria onartzen badu, urtebeterako luzatu daitezke.
- g) Programa hasteko gehieneko epea hilabetekoa izatea, transferentzia egindako egunetik kontatzen hasita.
- h) Proiektuan komunikatzeko erabiltzen diren baliabideetan Bilboko Udalaren logotipoa ongi ikusteko moduan jartzea, Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Sailak horretarako emandako jarraibideen arabera. Erakunde onuradunak baliabide horiek aurrez aztertze eskumena baliatzea erraztuko dio Udalari. Baldintza hori bete ezean, emandako diru-laguntza bueltatzeko prozedura has dezake Udalak.
- i) Bilboko Udalak, deialdi honen bitartez, programaren kostu osoa finantzatu dezake.
- j) Genero-ikuspegia integratzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko martxoaren 3ko 1/2022 Legeari jarraikiz. Lege horren arabera, hau da genero-ikuspegia integratzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.
- k) Bilboko Udalarekin, Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluarekin edo egoki iritzitako beste erakunderen batekin elkarlanean aritzea herritarrei programaren garapenaren berri emateko, eta gerora garapenaren inguruan elkarlanean antola daitezkeen sentsibilizazio- eta hezkuntza-jardueretan parte hartzea.

6.2. Hauek dira ekintza humanitarioko eta larrialdiko programetan diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Egindako gastutzat hartuko da justifikatzeko jarritako epea amaitu baino lehen ordaindutakoa, berariaz adierazi ezean.
- b) Diru-laguntzarekin gastu zuzen eta zeharkakoak ordaindu daitezke. Zeharkako gastuen egozpenak ezin du izan programaren kostu zuzenen % 7 baino handiagoa. Zeharkako gastutzat hartuko dira erakundeak Bilbon duen ordezkaritza edo egoitzaren funtzionamendu arruntari dagozkion edo esku-hartzea gauzatzeko balio duten gastuak edo, hala badagokie, lankidetzahitzarmenean zehaztutakoak.
- c) Gastu zuzentzat esku-hartzea egikaritzeko gastuak hartuko dira. Alde horretatik, hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastu zuzenak:
 - a. Lehen mailako osasun-arreta eta oinarrizko elikagaiak, ur edangarria, higie- eta garbiketa-materialak, berotzeko eta babes hartzeko materiala, nekazaritza-sargaiak eta etxeko oinarrizko tresnak hornitzea.
 - b. Langileak. Arau honetarako, langileak honela sailkatuko dira:
 - Langile erbesteratuak: estatuko legeria bete behar duten GGKEko langileak, diru-laguntzaren xede den esku-hartzea gauzatzen den herrialdean lan egiten dutenak eta esku-hartzearekin zerikusi zuzena duten zeregin eta lanak egiten dituztenak. Gastu honetarako muga eskatutako diru-laguntzaren % 10 izango da.
 - Tokiko langileak: GGKEren, haren tokiko bazkideen edo elkarte onuradunaren beste erakunde baten langileak, diru-laguntzaren xede den

esku-hartzea gauzatzen den herrialdeko lan-legeria betetzen dutenak, eta herrialde horretan esku-hartzearekin zeregin zuzena duten zeregin eta lanak egiten dituztenak.

Betiere, egozpena erabatekoa edo partziala izan daiteke, arduraldiaren arabera eta diruz lagundutako esku-hartzean egiaztatzen bada.

Diruz lagundu daitezkeen langileen gastuetan sar daitezke soldatak, esku hartzen duten langileen gizarte-aseguruak (erakundearen kargurakoak) eta langileentzat edo haien lehen mailako senideentzat hitzartzen diren gainerako aseguruak.

- c. Bertako funtzionamendua (elektrizitatea, ura, komunikazioak, mantentze-lana, segurtasuna...).
- d. Bidaiak, ostatua eta dietak. Barne hartzen dituzte esku-hartzea gauzatzeko ezinbestekoa den langileen eta pertsona onuradunen mugikortasunari loturiko gastuak. Sartzen dira bidaia-gastuak, dietak eta, hala badagokie, ostatu-hartzeak.
- e. Finantza-gastuak, aholkularitza juridiko eta finantzakoak, notarioak eta erregistrokoak, esku-hartzea gauzatzeko ezinbestekoak direnean. Kontzeptu horretan esku-hartzea gauzatzen den herrialdera funtsak helarazteko egiten diren banku-transferentzietatik eratorritako gastuak sartzen dira.
- f. Proiektuan aurreikusitako gastuak, esku-hartzearekin eta gizarteaz garatzeko eta sensibilizatzeko Bilbon gauzatzen diren hezkuntza-ekimenekin zerikusia dutenak; ekimen horiek izan daitezke mintegiak, hedakuntza-tailerrak, argitalpenak eta abar.
- g. Kanpo-ebaluazio eta -ikuskaritzak, betiere administrazioak eskatzen baditu edo, eskatzaileak diru-laguntza eskarian proposatu ondoren, administrazioak onartzen baditu.
- h. Diruz laguntzeko moduko kontzeptu baten zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada (zerbitzuak eta horniketak 15.000 euro gehi BEZ, obrak 40.000 euro gehi BEZ), erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez. Hori, salbu diruz laguntzeko moduko gastuen eta/edo esku-hartzea gauzatzen den herrialdearen ezaugarri bereziak direla eta merkatuan zerbitzu hori behar bezala hornitzen edo ematen duen erakunde nahikoa ez badago. Horrelakorik gertatuz gero, salbuespen hori ziurtatzen duen txostena behar da.
Aurkeztutako eskaintzak aukeratzeko, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak aplikatu behar dira. Alde horretatik, eskaintzak justifikazioan edo, hala badagokie, diru-laguntza jasotzeko eskarian aurkeztu behar dira, eta, proposamen ekonomiko onena aukeratzeko ez bada, memorian berariaz justifikatu behar da.
- Esku hartzen den herrialde edo eremuaren arabera arrazoiak behar bezala justifikatuz gero, administrazioak atal honetako baldintzak betetzea salbuetsi dezake.
- i. Salbuespen gisa, oinarritzko azpiegitura fisikoen materialak, garraioa, biltegiratzea, eraikuntza, birgaitzea edo instalazioa finantzatu daitezke, eta baita diruz lagundutako jarduerari atxikitako elementu ibilgetuak (salbu lursailak eta eraikinak): makinak, altzaria, ekipamendu

informatikoa, garraio-elementuak eta beste ekipamendu batzuk. Kontzeptu honetan ekipamendua bidaltzeko gastuak sar daitezke.

i puntuko inbertsio-gastuak ezinbestekoak direla justifikatzen duen azalpen bat egin behar da. Halaber, i) puntuko inbertsio-gastuak proiektuan txikiak izan behar dute eta ezin dute, inola ere, diru-laguntzaren % 10 baino gehiago izan.

d) Honako hauek ezin dira inola ere diruz lagundu:

- Banku-kontuetako interes zordunak.
- Interes, errekaratu eta zehapen administratibo eta penalak.
- Prozedura judizialakoko gastuak.

e) Orokorrean, zergak diruz laguntzeko gastuak dira baldin eta erakunde onuradunak ordaintzen baditu.

6.3. Balorazio Batzordeak eskatzaileak aurkezturiko programan jardura eta gastu batzuk aldatzea proposa dezake, helburuak betetzeko zenbateraino diren premiazkoak aintzat hartuta. Aldaketa horien ondorioz aurrekontua ere aldatzen bada, erakunde eskatzaileari eskaria berriz egitea proposa dakioke.

7. artikulua. Eskariak

7.1. Aurkezteko epea

Eskariak aurkezteko hamabost (15) egutegi-egun egongo dira, ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia honako hauetan egongo da eskura: **web-orrian, Bilboko Udalaren gardentasunaren atarian** (www.bilbao.eus), Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean eta Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Sailean, dagozkien ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.

7.4. Erakundearen legezko ordezkariak edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. Artikuluak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua eta 1/2022 Legearen 21bis.b artikulua, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea biarren aldiz aldazen duena, ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.6 Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki iritzitako argibide guztiak eska diezazkieke erakunde eskatzaileei.

7.7. Erakunde eskari-egile bakoitzak dirulaguntza deialdi honetarako programa bakarra aurkeztu ahal izango du.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskarietan aurkeztu behar dira eskabide-orria, sinatuta, eta dokumentu hauek:

- Landuko den programaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Ekintza Humanitarioko eta Larrialdiko laguntzako Programaren formularioa" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria

8.2. Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina, horretarako, aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanak.

8.3. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.4. Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak zuzendu ezean, eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideakGUZTIRA 75 puntu

a) Programaren interesa. Gehienez 45 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Programak indarrean dagoen Bilboko Udaleko Garapen Lankidetzarako Plan Zuzentzailearekin duen lotura-maila, partaide-kopurua, aurreikusitako eragina, teknologia berrien erabilera/berrikuntza, eremu geografikoa, programaren iraupena, kolektibo hartzailea, programaren sendotasuna (programa aurrez egin izana), beste erakunde batzuekiko elkarlana eta jarduera gauzatzen den lekua.

- b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 15 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honako hauek sartzea: lortzea espero diren emaitzak, betetze-adierazleak eta ebaluazioa, kanpo-komunikazioa, barne-komunikazioa, justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak), gerora begirako oinarriak zehazten dituen ikuspegi integrala, ahulberatasuna gutxitzea, ahalmenak indartzea, giza eskubideak sustatzea eta bakea eraikitzea. Programek Udalak finantzatutako proiektuek aurrera egitea arriskuan jartzen dituzten bat-bateko ezbeharrak arintzea ere baloratuko da.

- c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 15 puntu.
Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Finantza-ahalegina (beste finantziario-iturri batzuk bilatzea), baliabideak modu eraginkorrean antolatzea, eta programaren interesaren eta aurreztutako aurrekontuaren arteko erlazioa.

B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 25 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Esperientzia egiaztatua, programa lantzeko gaitasuna, egitura partizipatibo eta bidezkoa, koordinakundeetan parte hartzea, bazkideek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, bazkide-kopurua, egoitzaren irisgarritasuna, programarekiko lotura eta xede-eremuan esku hartzeko gaitasuna.

Programak baloratzeko, dirulaguntza eskatzeko inprimakian eta erakunde eskatzaileak bere borondatez sartu ahal izango dituen ondorengo eranskinetan jasotako informazioa bakarrik hartuko da kontuan:

- a) -Aurrekontu banakatua.
- b) -2.500 eurotik gorako gastuen proformako fakturak, unitateko kostuan
- c) -Erakunde publiko eskudunen abalak
- d) -Material grafikoa eta kokapen-mapak

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozedura bideratzeko eskumena Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko Lankidetzaren Sekzioari atxikitako teknikariek izango dute.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jardungo duen Balorazio Batzordeko kideak hauek izango dira:

Lehendakaria: Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko zinegotzia.

Idazkaria: Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko zuzendaria.

Kideak: Sekzioko burua.

Garapenerako Lankidetzako teknikariak.

10.3. Instrukzio-organismoak, espedienteak eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 80 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki. Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak. Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 80 baino txikiagoa bada, erakunde eskatzaileari berriz antolatzeko eskatuko zaio.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzarrari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 2 hilabetekoa da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Bi hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Erakundeei Bilboko Udaleko sailek emango diete Udalaren logotipoa.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, udal-erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkartzari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.
- Tokiko bazkidea edo atzerriko kontrapartea aldatzea.
- Proiektuaren hartzaile nagusiak aldatzea.
- Proiektua lekuz aldatzea.
- Jatorrizko kronograman jardueren egikaritzeari eragiten dioten aldaketak egitea.
- Epeak luzatzea.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzarrak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntzak egokituta, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, udal-erregistroaren bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek, Bilboko Udalaren ebazpenaren ondoren beste herri-administrazio batzuen diru-laguntza edo laguntza finantzarioak jasotzen badituzte proiektu bererako, Bilboko Udalari jakinarazi behar diote dagokien jakinarazpena jaso eta, gehienez, hilabetera.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

Aurrekontua justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du.

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Proiektuaren memoria tekniko honetan gai hauei buruzko informazio zehatza jaso behar da: zer ekintza gauzatu diren, zer emaitza lortu diren, zer helburu lortu diren eta zer arazo antzeman diren, genero-analisiaren ikuspegitik. Hala badagokio, proiektuak zer eragin izan duen azaldu behar da: arlo tekniko, ekonomiko, sozial, politiko eta ekologikoak eta emakume eta gizonen arteko botere-harremanak.

Memoria teknikoan Power Point bat sar daiteke (gehienez 20 diapositiba), gauzatutako proiektua laburtzeko: lorpenak, ahuleziak, indarrak, iraunkortasuna, gauzatutako ekintzak eta abar. Power Point-ak proiektua gauzatutako eremuaren argazkiak eta eremua kokatzeko mapak eduki behar ditu. Power Point hori Bilboko Udalaren web-orrian jarri ahal izango dute, urteko memorietan.

- b) Justifikazio-kontuan egindako gastuen zerrenda jaso behar da, partiden arabera zenbakitua, onartutako aurrekontuan adierazi bezala, eta jatorrizko dokumentazioari gehituko zaio. Zerrenda eredu honen arabera egin behar da: faktura edo dokumentuaren zenbakia, ordainketa egin duen erakundea, eguna, partida, kontzeptua, erakunde hornitzailea, zenbatekoa herrialdeko monetan eta zenbatekoa eurotan. Zerrenda hori frogagiri hauek gehitu behar zaizkio, proiektuaren zenbateko osoa osatu arte: nominak, egiaztagiri eta faktura originalak edo notarioak konpultsatutako kopiak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu.
- c) Ordenantza Orokorreko 14.7 artikulua dion moduan, nazioarteko erakundeek beren dokumentuak erabil ditzakete frogagiri gisa, era horretako erakundeek justifikazioak egiteko erabiltzen dituzten sistema eta protokoloen arabera.
- d) Proiektuak beste herri-administrazio baten diru-laguntzaren bat badu, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuko 33. artikuluan herri-administrazio horiek ematen dituzten funtsen gainean ezarritakoa beteko da.

Kutxako ordainagiriak erabil daitezke, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuko 40.3 artikuluan zehaztutako moduan.

- e) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:

- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agiriaren bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagiriekin, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonalaren gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagirik aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jardura gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 7 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

- f) Ikuskatzailearen txostendun justifikazio-kontuaren modalitatea erabil daiteke, betiere maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduan ezarritako baldintzak betetzen badira.
- g) Behar bezala egiaztatutako salbuespen-egoeretan, justifikatzeko beste modu batzuk onar daitezke, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuko 39. artikuluan ezarritako moduan.

19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada

Justifikazioa aurkezteko betekizuna betetzen ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada, erakunde onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, dagozkien berandutze-interesak barne, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 37.1 artikuluan ezarritako moduan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.